



Jantokiko langileen greba

Jantokiko langileen greba dela eta, zera helarazi nahi dizuegu gure kolektiboan izan dezakeen eragina kontuan hartuta:

- Langile hauek bete beharreko zerbitzu minimoak ezarri dituzte eta Heziketa Bereziko ikasleentzat ere “ezinbesteko minimoa” ezarri dute. Hau dela eta, guk atenditu beharreko ikasleak jantokian geratzen badira, gure betiko lana bete beharko dugu jantokian eta ez beste inorena, jantokiko langileekiko **ELKARTASUNEZ** jokatu.
- Gure bazkaltzeko denbora bermatzen dela ziurtatu beharko dugu alde batetik. Bestaldetik ere, kontuan izanda guretzako zerbitzu minimorik ez dagoela (ez bazkaririk, ez bera zerbitzerik), langile hauen lan zama ez gehitzearren, etxeko janaria eramatea gomendatzen dizuegu. Egun horietako janariaren diru kopurua Departamentuari erreklamatzeko ere gomendatzen dizuegu.